

B

BARREN

TOKIKO

Agintaldiaren azken txanpan

Alfredo Etxeberria, alkatea



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

San Roke 10-A behea B
☎ 647 463 436

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20





Janire Elordi

liieeeeeuuuppp, Maitane! Santa-eskean aurpegia hoztuta ezta-ria urratu arte ibili ondoren, eta Santa Agedaren ize-
nean egiten dugunak niregan behintzat motibazio erlijiosorik ez duela aitortuta, ekintzaren grazia, sorburu edo gakoa zein ote den hausnartzeari ekin diot.

Esan behar dut, trikitixaren soinura makilaz lurra jo eta pozez kantatzean, gure arbasoen lurra esnarazteko erritu paganoetatik gertuago sentitzen naizela, Agedak Jainkoagatik egin zituen sakrifizioen penetatik baino.

Hala ere, esan behar da istorio hau dela Elizaren ipuinen artean emakumeon duintasunari ohore egiten onenetakoa. Esaten baita Ageda, neska eder hura, ez zela sekula makurtu gizon zital aberats haren menpera, egin zizkietenak egin zizkiotela ere.

“Arno guraso elkartearantzako diru-eskean Mendaroko gurasoen falta igarri nuen”

Aurten ere, baserri eta etxe-bakarretan, gogoz hartu dute eskean goazenon urteroko bisita, eta eskertu nahi nuke *santaeskalariei* eskaintzen zaien arreta hori. Zakuak paperez betetzeaz gain, jarduna arintzeko, jan-edan goxoak eta sutondo epela eskaintzen baitituzte sarri kantu truk. Baina Arno guraso elkartearantzako laguntza kalezkale eskatzen hastean, ia animoa hondoratu zitzaigun. Etxe askotan ez zuten aterik ireki ere egiten, eta inor gutxi irteten zen leihora bertsoak entzuteratzen. Bazirudien larunbat goiz hotzean inor ez zela bizi herrian. Eta Mendaroko gurasoen falta igarri nuen eta baita haien inplikazio falta ere, bai eskerako taldea handitzera animatu ez zirelako eta baita leiho eta ateak zabaldu ez zituztelako.

Aurtengoz, bildutako dirua Arnok urtez urte bete duen funtzio garrantzitsua indartzeko izango da. Hurrengo batean, bildutako dirua horrenbeste ematen duten baserrietako herritarrei proiektu politen batean itzuli ahal izateak poztuko ninduke.



Maitane Mendikute

Kaixo, Jani.

Tira egiteko moduko hari desberdinak jarri dizkidazu gaurkoan, eta egia esan, ez dakit nondik hasi...

Ez naiz Agedaren biografian aditua, ezta Santa Agedako koplak abesten ere. Gaur arte gutxi pentsatu dut Ageda eta bere biziaz.

Baina betidanik izan ohi dut gogoan, ikastola edo katekesi garaietatik-edo, emakume bat, erreteilu baten titi batzuk garraiatuz.... Makabro samarra, horrela ikusita!

baina badu bere zergatia, noski! Eta nahiz eta neu ere oso santu zalea ez naizen, Agedak horrelako sinpatiatxo bat sorrarazten didala aitortu behar dizut. Ez dakit emakumea naizelako, edo/eta bere istorioa egungo beste hainbaten antzerakoa iruditzen zaidalako...

Badirudi nekazari giroan mundura umeak ekarri berri zituzten emakumeen zaindaria zela bera, eta ume jaio berriari esnerik eman ezin zioten amek eskatzen ziotela laguntza. Beraz, jakina da, orduetik gaur egungo ospakizun/ohituretara eboluzio nabarmen bat izan duela kontuak.

Baina hainbeste menderen ostean, oraindik bizirik dirau! Nahiz eta eraldatuta, noski! Pozten naiz! Hala ere, badakizu ez naizela *santaeskalarri* sutsua, eta niregatik izango balitz, ama izan berrien umeak gosez egongo lirakekeela, eta Arno guraso elkartearen diru-zorro gabe aurtengoan.

“Argi dago umeentzat esnea nahi duen amak berak kantatu behar diola Agedari”

Eta aurtengo ekitaldiaz diozu, kalekoa hotza izan zela, ezta? Ez dakit zer esan, Jani. Pena da! Garbi dago individualistago bihurtu garela, urbanitago, errito pagano eta erlijiosoak modatik pasatakoak iruditzen zaizkigula... Gu aldatzen garen heinean...errito hauek ere garai berrietara moldatu beharra izango dute, agian?

Dena den, esker onekoa izatea ez dago inoiz soberan. Eta argi dago umeentzat esnea nahi duen amak berak kantatu behar diola Agedari hurrengoan.

I. URTEURRENA

AGUSTIN OÑEDERRA IRURETA

“Garro”

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 14, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEK
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren
Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi,
Ima Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA
Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE
GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskutitzailearen Tokiagunea

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiKal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Joan zen larunbatean Mendaron santa-eskean batutako dirua Arno guraso elkartearen-tzat izan da. Diru horri esker, Mendaroko ikas-tolako haurrentzako txango, kirol-ekintza eta bestelako ekintzak antolatuko ditugu.

Lerro hauen bidez, gure eskerrik beroena eman nahi diegu santa-eskean parte hartu zu-ten lagunei, diruz lagundu dutenei eta antola-kuntzan jardun dutenei.

Mila esker.

Arno guraso elkartea ☺

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruan bi xehetasun

Aurreko astean argitaratu zen hainbat me-dioetan bai EHBildutik alkateari egiten geniz-kion kritikak Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua-ri zegokion diru-laguntzari uko egiteagatik, eta bai alkatearen erantzuna. Hori dela eta bi xe-hetasun alkateak diotenari:

1. Berdin da zeintzuk izan diren arrazoiak horrelako neurri bat hartzeko, elgoibartarroi dagokigun diru-laguntza bati uko egiteak ez du ez hankarik, ez bururik. Ondorio bakarra du: Udalak eskaini duen zerbitzua oso osorik geuk Elgoibartarrok ordaintzea.

2. Alkateak, hartu duen neurria justifika-tzeko, etkez etxeko laguntza zerbitzuak orain-dik ere murrizketa handiagoak izango dituela dio, EHBilduren eta PSEren botoekin onartu zen Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Pla-nak diotenaren arabera.

Hori ez da horrela. Edo alkatea gezurretan ari da edo ez daki zein den egoera. Zaila da erabakitzea zein den aukera negargarriagoa.

Plan hori Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuaren plana da, eta ez da Batzar Nagusietan bozkatu. Batzar Nagusietan aur-keztu egin zen eta urtean zehar udaletako or-dezkarien ekarpenak jaso ondoren Gizarte Politika departamentuak garbi utzi zien Gipuz-koako udal guztiei zeintzuk ziren planaren az-ken baldintzak. Badirudi Elgoibarko Udala de-la horretaz jabetu ez den bakarra laguntzari uko egin dion udal bakarra izan baita.

EH Bildu Elgoibar ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako.
4. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
5. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
6. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitzik argitaratuko.

**Sigmako zubiko josteko makina oso zikina dago:**

"Sigmako zubiko josteko makina herriko irudiaren erakusgarri da, eta uste dut hobeto zaindu behar genukeela. Oraindik erreminta makinaren mendeurrenean gaude, eta une egokia izan daiteke josteko makina hori garbitzeko. Azken batean, Elgoibar makina erremintaren sorlekua da, eta josteko makinak ere oso garrantzitsuak izan ziren Elgoibarrentzat".



Elurraz gozatu ostean, San Roke auzoko zelaia plastikoz beteta utzi dute: "Lotsagarria da batzuek elurraz gozatu eta gero, erabilitako plastiko zatiak zelaian uztea.

Hurrengo elurterako utzi dituzue zelaian badaezpada, edo? Beti bezala, baserritarra arduratuko da zelaia garbi eta ondo mantentzeaz, hurrengoan ere kaleko jendeak elurraz gozatu dezan. Ardura pixkat mesedez, mendiaz gozatu, bai, baina izan arduratsu, eta ingurua zaindu".

**Kultur Etxe atzeko zubia oso labaina da:**

"Kultur Etxe atzeko zubia oso arriskutsu jartzen da euria egiten duenean. Egurrezkoa da, eta bustitzen denean oso labaina jartzen da. Joan zen asteko egun euritsuetan beldur handiz ibili ginen zubia pasatzerakoan. King-Kong zubia itxita dagoenetik, jende asko pasatzen da zubi horretatik, eta neurriren bat hartu beharko litzatekeela iruditzen zaigu".



Altzolatik Mendarorako irteeran argi gutxi dago: "Altzola auzoaren amaieran argi gutxi dago, Elgoibartik Mendarorako norabidean, Altzolabe baserri inguruan. Elkarte moduko bat dago hor, eta jendeak errepidea gurutzatu behar izaten du, autoa errepidearen beste aldean dagoen aparkalekuan uzten duelako. Askotan ilun egoten da, eta arrisku handia sortzen da. Farolaren batek arrisku hori txikitu egingo lukeela iruditzen zait".



Mila esker Sallobenteko bideak garbitzen jardun dutenei: "Eskerrik asko elurra egin duen egunetan gure auzoko bideak garbitzen jardun dutenei. Haien lanari esker auzorako joan-etorriak errazagoak izan dira".



II. URTEURRENA

ROSA ITURRIA OTAMENDI

2013ko otsailaren 14an hil zen, 58 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 14, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



GALen biktima baten eta ETaren bi biktimaren testigantzak entzungo dira gaur bakea eta bizikidetzari buruzko saioan

Pili Zabalak, Jose Miguel Gomez Elosegik eta Rosa Roderok parte hartuko dute

Bakea eta bizikidetzari buruzko jardunaldietako bigarren saioa izango da gaur. *Sufrimenduaren testigantzak* jarri diote izena saioari, eta hiru biktimak parte hartuko dute: GALek 1983an bahitu eta hil zuen Joxi Zabalaren arreba Piliik, ETAK 1997an hil zuen Francisco Javier Gomez Elosegiren anaia Jose Miguelek eta ETAK hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren alargun Rosa Roderok. Sufrimenduaren hiru aurpegi dira, eta nork beretik hitz egingo du, elkarrengana hurbiltzeko ahaleginean. Musika Eskolan izango da hitzaldia, 19:00etan.

Iker Uson Baketikoko kidearen *Sufrimenduaren errealitatera hurbilduz* izenburuko hitzaldiarekin hasi zituzten jardunaldiak eguaztenean, eta otsailaren 25ean antzerki forum batekin amaituko dituzte. 18:00etan izango da, Inazio Bereziartua Musika Eskolan. Hiru galderen inguruan hausnartuko dute antzerki forumean: zer gertatu da, eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin? Antzerki-lan labur bat antzeztuko dute aipatutako gaiarekin harremana duten bost istorio laburrekin. Ondoren, ikusleei galde-



Jardunaldietan parte hartuko duen Rosa Rodero (eskuinean), Carmen Gisasola eta Andoni Alza preso ohiekin. Arg: eitb.

tuko diete kontakizunaren zein puntutan gerta litekeen aldaketaren bat amaiera positiboago batera bideratzeko. Jardunaldian parte hartzeko izena eman behar da: info@baketik.org / 943 251 005.

Saturrarango kartzelan preso izandako emakumeen zerrenda eman dute

1938. urtetik 1945. urtera bitartean Saturrarango espetxean preso izan zituzten emakumeen zerrenda aurkeztu du Euskal Memoria Fundazioak, eta tartean hiru elgoibartar daude: Aniceta Garate Etxaniz 1906. urtean jaiotakoa, eta Geronima Alberdi Arrieta eta Maria Alberdi Arrieta ahizpak, 1911 eta 1915. urteetan jaiotakoak, hurrenez hurren. Zerrendan, 1.583 izen jaso dituzte: http://db.euskalmemoria.com/espetxeratuak_saturrarango. Herriz herri eta eskualdez eskualde egindako informazio bilketaren emaitza da argitara eman duten aipatutako zerrenda hori. Zerrenda horren aurretik, hala ere, baieztatu daitezkeen 3.273 tortura kasu ere zabaldu zituzten webgune berean.

Zinegotzi izateko lau hautagai aurkeztu ditu EAJk



Alkategaiarenaz gainera, beste lau hautagaien izenak eman ditu EAJk. Joan zen ostiralean aurkeztu zituzten, prentsaurrekoan. Alberto Iriondo Uri Buru Batzarreko presidentea, Ane Beitia alkategaiak eta Alfredo Etxeberria gaur egungo alkateak eman zuten prentsaurrekoa, Batzokian. Han esandakoen arabera, Josu Arraiz, Maialen Gurrutxaga, Gorka Garaizabal eta Blanka Larrañaga dira zinegotzirako lau hautagai. Josu Arraizetaz 23 urte dituela eta ingeniaria dela zehaztu zuten eta Hirigintza Sailaren ardura hartuko lukeela, Ricardo Garateren ordeiz. Maialen Gurrutxagaren inguruan 22 urte dituela eta kimikaria dela esan zuten, eta Gorka Garaizabalek 31 urte dituela eta komertzial lanetan ari dela. Blanka Larrañagatuz ez zuten daturik eman. Era berean, gaur egun zinegotzi diren Bittori Zabala eta Joseba Arrizabalaga ere badaude zinegotzi izateko hautagaien zerrenda horretan.

Atzerapenez, baina bukatu dituzte Maalako parkea estaltzeko obrak

Eguraldia izan da obrak atzeratzeko arrazoi nagusia

Gaur arratsaldean zabalduko dute Maalako parkea, eta asteburuko ospakizunetarako prest egongo da. Hasiera batean Gabonetarako amaitu nahi zuten arduradunek, baina eguraldiaren eraginez, obrak uste baino mantsoago joan dira. Euriak eta hotzak eragina izan du estalpea jartzeko lanetan, beirak pegatzeko kolak hotz handiarekin ez duelako pegatzen. Dena dela, Udaleko arduradunak pozik agertu dira emaitzarekin. Ricardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak esandakoaren arabera, aste honetan bertan egin dituzte argiztapen probak, eta emaitza gustatu zaie.

Maalako parkea estaltzeko proiektua aukeratzeko ideia lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Udalak, eta losu Gabilondo arkitekto elgoibartarrak aurkeztutako *Hego-*



ak ebaki banizkio izeneko aurre-proiektuak irabazi zuen lehiaketa. Zortzi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta epaimahaiak esandakoaren arabera, lanak izan zituzten irabazlea aukeratzeko. Ingurura nola egokitzen zen, egitura mantentzeak zer kostu izango

zuen gerora begira, gaur egun parkeari ematen zaizkion erabiletara nola egokitzen zen, prezioa eta argitasuna izan zituzten kontuan, besteak beste, eta horiei erreparatuta aukeratu zuten losu Gabilondoren proiektua.

King-Kong zubiko obrak amaitu dituzte



Amaitu dituzte King-Kong zubiko obrak eta dagoeneko erabiltzeko prest dago. Zubiko bi zatitan zeuden eskailerak kendu dituzte, Urazandi auzorako irisgarritasuna hobetzeko. Uste baino egun batzuk gehiago behar izan dituzte lanak amaitzeko, batetik, eguraldi txarra egin duelako, eta bestetik, herritarren batek gauean oraindik gogortu gabe zegoen masa zapaldu eta bere hanken oinatzak han gogortu zirelako. Langileek berriz pikatu behar izan zuten zorua, eta horrek ere pare bat egun atzeratu ditu lanak. Udalak 15.000 euro inbertitu ditu obra honetan.

Elgoibarko PPk herritarren ekarpenak jasoko ditu Udal Hauteskundeetarako herri-programa osatzeko

Elgoibarko PP alderdiak herritarren eskura jarri ditu sare sozialak eta alderdiaren webgunea, herritarrek Udal Hauteskundeerako ekarpenak egin ditzaten. Javier Nuñez PPko zinegotziaren iritziz, elgoibartarren beharrak ezagutzea ezinbestekoa da herri-programa osatzeko, eta herritarren ekarpen horiek jaso nahi ditu, hurrengo legealdian udaletxean defendatzeko. Interesatuak Twitter-eko @ppelgoibar kontura bidali ditzakete proposamenak, eta bestela, www.ppelgoibar.com webgunean dagoen formularioa bete daiteke.



ALFREDO ETXEBERRIA

ALKATEA

“Alkate izateak herriko detaile txikiena ere ezagutzeko aukera ematen du, eta hori oso aberasgarria da”

Bi legealdi egin ditu Alfredo Etxebarriak Elgoibarko alkate, eta dagoeneko iritsi da bere agintaldiaren azken txanpara. Makina-erreminta mundutik iritsi zen alkatetzara, eta berriz ere hara itzuliko da, baina ez du politikagintza utziko. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaien zerrendan bigarrena da Etxebarria Urola Kosta-Debarrena eskualdean. Zortzi urte hauetan Elgoibarren egindako lanaren balorazioa egin du Etxebarriak.

Zortzi urte egin dituzu alkate. Legealdia bukatzeaz dagoen honetan, agintaldiaren zein balorazio egiten duzu?

Oso ona. Hori esatea erraza izan daiteke, baina horrelakoa izan da. Betidanik egon izan naiz politikoki EAJn inplikaturatuta, eta herrigintzan interesa izan dut. Nire ibilbide honetan ez nuen uste alkate izatera iritsiko nintzenik, baina aukera izan nuen eta pozik heldu nion erronka horri. Zortzi urte hauetan Elgoibarren alde lan egiteko aukera izan dut lehenengo ilaratik. Herritarrek euren balorazioa izango dute, batzuk gustura egongo dira, eta beste batzuk ez, baina ni oso pozik nago egin dudana lanarekin. Badakit agindutako gauza batzuk egin gabe geratu direla, baina gustura nago egindakoarekin. Bereziki, zortzi urte hauetan Udalean izan den giro ona nabarmendu nahiko nuke. Alderdiek akordioak lortzeko izan duten jarrera oso ona izan da, eta ez da gatazka zaratsurik egon. Zortzi urte hauetan gauza asko izan ditugu: krisialdia, ETaren desagertzea, bizikidetzeta... Hori guztia tentsio gabeko giroan kudeatu dugu eta eskerrak eman nahi dizkiet Udaleko ordezkari guztiei.

Zortzi urte egin dituzu karguan. Zergatik erabaki duzu berriro ez aurkeztea?

Alderdiak daukan hitzeko konpromiso moduko bat da, eta inon idatzita ez dagoen arren, hori betetzen saiatzen gara. Aukera dagoen bitartean, osasungarria da jende berriari lekua egitea. Normalean alkate sartzeko garenok ogibide bat izaten dugu, eta alkate kargua uztean hara itzultzen gara. Enpresa horrek ahalegina egiten du lanpostu horretan ordezko bat jartzeko, eta agintaldia amaitzen denean berriz hartu behar zaitu, beraz, enpresaren inplikazio hori ere kontuan hartu behar da. Nik uste dut zortzi urte nahikoa direla, bai alkate izan denarentzat eta baita enpresarentzat ere. Errobera ez gelditzea da inportanteena.

Hemendik aurrera, zein da zure asmoa?

Bi gauza ditut eskuartean: Lehengo postura itzultzea. Ona enpresara, batetik, eta, bestetik, Urola Kosta-Debarrena eskualdeetako zerrendetan bigarren hautagaia naiz EAJtik Batzar Nagusietarako. Horrek esan nahi du batzarkide izango naizela. Herrigintzatik lurraldegintzara pasatuko nintzateke, Gipuzkoako zinegotzi izatera. Erronka berri bat izango da niretzat, eta bi lanak uztartuko ditut. Beti egon izan naiz politikan, eta ezagutzen nautenek badakite hori. Batzuek musikarako zaletasuna dute, beste batzuek kirolerako edo kulturarako, eta nik politikarako zaletasuna daukat. Udalak herriko elkarte eta eragileekin lan egiteko aukera eman dit, eta hori oso gustukua dut.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan posible da alderdi berri bat sartzeko joan: Podemos. Nola aldatuko du horrek Gipuzkoako egoera politikoa?

Ez dakit zenbaterainoko indarra izango duen Podemosek. Bere egunean Ezker Batua izan zena izango da? Ez dakigu, eta ikusi egin behar harko da. Inkestek indarra ematen diote, baina Euskal Herrian badirudi ez duela Espainian besteko indarririk izango. Asko hitz egiten ari dira, baina gero lan egin behar dute. Oposizioan egotea oso eroso da, gobernatzeko asmorik ez badaukazu behintzat. Diotenez PSE-EEri eragingo dio kalterik handiena, baina ikusi egin behar harko da.

Nola aurkitu zenuen Elgoibar orain dela zortzi urte, eta nola utziko duzu?

Alkatetzara heldu nintzenean Elgoibar ondo zegoen. Diktadura ostean, EAJk Udal honen agintea hartu zuenean zailtasun handiak zeuden, baina legealdiz-legealdi lanean jardun dugu, eta egoera hobetuz joan da. Orain dela zortzi urte egoera ekonomiko onean aurkitu nuen Elgoibar, eta herri oso aberatsa aurkitu nuen, herritarren eta erakundearen parte-hartzearen eta konpromisoaren aldetik. Elgoibar bezalako herri dinamikoak gutxi egongo dira! Kanpotik etortzen den jende askok esaten du herria asko aldatu dela eta oso polita dagoela, eta daukagun agendarekin ere harritu egiten dira. Harro egoteko moduko herria daukagu.

Zer izan da alkate izatearen alde onena eta txarrena?

Gauza txarrik ez diot aurkitu. Beharbada 11.000 begi-pare norberari begira egoteak ematen du errespetu gehien, baina hori karguarekin dator. Eta alde onak, aldiz, asko ditu. Ni harremanekin geratzen naiz: Udaleko langileekin, herritarrekin, eragileekin, elkarteekin, enpresarekin, hezkuntza munduarekin... Alkate izateak herriko detaile txikiak ezagutzeko aukera ematen du, eta hori oso aberasgarria da. Herriak eta herritarrek dituzten beharrak ezagutzen dituzu, eta behar horien

zergatiak ere ulertzen dituzu. Azken batean iragana eta etorkizuna lotuta daudela konturatzen zara.

Nola gerturatu zaizkizu herritarrek kalean? Gertuko ikusi zaituzte? Alkate izatea 24 orduko lana bihurtzen al da?

Beldurra neukan alde horretatik, baina egia esanda, ezin naiz kexatu. Jendeak orokorrean errespetuz jokatu du nirekin, eta oso gutxi izan dira modu txarrean gerturatu zaizkidanak. Batzuek esaten didate oso serioa naizela, eta horrek herritar batzuk atzera botatzen dituela, baina azken egun hauetan jendea etorri izan zait egindako lanagatik zorionak ematera, eta hori pozgarria da.

Komunikabideetan sarri ikusi zaitugu, bai herrikoetan eta baita nazio mailakoetan. Eroso sentitzen zara?

Nazio mailakoetan ez gara gehiegi irten. ETB moduko medioetan irteko produktu oso ona eduki behar duzu, eta baditugu ekintza garrantzitsuak, Mugertza krosa esate baterako, edo Gabon Zahar eguneko azoka. Trinidadeetako danborrada ere ETBn emango dute zuzenean, baina oro har, Elgoibarren sortzen diren notiziak txikieria dira nazio mailako medioentzat. Ekintza berritzaileak badira ere ateratzen dituzte, *Linea verde* aplikazioa esaterako, edo Emugi, bere garaian, baina normalean gehiago ateratzen dituzte berri txarrak edo sentsazionalismo kutsua dutenak, berri onak baino. Herriko medioekin harremana ona izan da, ezagutzen gara eta iruditzen zait Udalak egiten dituen gauzak jakinarazi egin behar dituela. Horretarako tresna aproposa da prentsa.

BARREnekin behin baino gehiagotan haserretu zara zortzi urte hauetan. Zein aho-zaporerekin geratzen zara?

Bi gauza esango dizkizut Elgoibarko Izarra eta BARREni buruz. Elgoibarko Izarrari dagokionean nik oso argi daukat zein produktu eskaini behar duen: Elgoibarko euskararen erabilera areagotzeko adin txikikoen gurasoak eta eskolaz-kanpoko ekintzetako begiraleak euskaldundu

“11.000 begi-pare norberari begira egoteak ematen du errespetu gehien, baina hori karguarekin dator”

behar ditu. 10 urtera arteko ume guztiek euskaraz dakite, eta erabili egingo dute beraien ingurua horrekin bat baldin badator, beraz, hor ez da lanketa berezirik egin behar. Arazoa gero dator. Nik ingeles maila bat baneukan, baina zortzi urte hauetan seguru galdu egin dudala, ez dudalako erabili. Ingalaterrara joan nintzenean ez nekien hitz bat ere ingelesez, eta bi urtean maila ona lortu nuen. Gero, hamazazpi urtez ibili izan naiz munduan zehar esportazioan lanean, inolako arazorik gabe. Erabilera da klabea. Elgoibarko Izarrak kolektibo horiekin egin behar du lan, hau da, ume-gaztetxoengan eragiten duten pertsona horiek euskaldundu behar ditu. Hori ez da erraza, baina garrantzitsua da, eta uste dut hor badagoela merkatua. BARRENI dagokionean, badakit herriak eta herritarrek estimatzen dutela. Etxe gehienetara iristen da, eta alde horretatik lortu da euskaraz irakurtzeko tresna bat herritar guztien etxera iristea. Horretarako sortu zen, eta alde horretatik helburua bete da, baina ez dugu ahaztu behar doan banatzen dela. Kobratuko balitz, askoz jende gutxiagok hartuko luke, beste gauza guztiekin gertatzen den bezala. Edukiei dagokienean, bakoitzak bere iritzia izango du, eta niri iruditzen zait linea editorial jakin bat jarraitzen duela, baina hori alde batera utzita, gertuko gaiak eta euskara errazean idatzitakoak landu behar harko lituzkeela uste dut. Irakurleari interesa piztu behar dio gaiak, euskaraz irakurtzeko ahalegina egiteko. Eta interesa gertuko gaiak pizten dute. Edukiekin kontu handiz ibili behar da, bestela, eduki horiekin disgustura dagoenak ez du aldizkaria irakurriko. %80ak euskaraz hitz egingo balu, agian BARRENEAN beharrik ez litzateke egongo, beraz, helburua %80 horretara iristea izan behar da. Dudarik gabe Elgoibarko Izarra eta BARREN beharrezkoak dira euskara sustatzeko, baina helburu horri lotuta lan egin behar dute oneoro.

Zortzi urteotan ondo egindakoak eta gaizki egindakoak izango ziren. Nola hartzen dituzu kritikak?

Udaletxean sartzen denak ezetz esaten jakin behar du. Saiatu egin behar da baiezkotzea erantzunak ematen, baina ezin denean, ezetz esaten jakin behar da, betiere, eskean datorrenari laguntzen saiatuz. Azken batean zerbitzu enpresa bat gara, eta herritarren zerbitzura gaude. Denekin asmatzea ezinezkoa da; hortaz, kritikak jasotzea normala da. Nik badakit kritikak onartzen, kritikak onak direlako. Ekarpenerik ez dakarten komentario deskalifikatiboak, zurrumurruak eta kritikak bereiztu egin behar dira. Zurrumurruak eta komentarioak ezjakintasunetik sortzen dira, eta ezjakintasuna arriskutsua da. Kritikak, aldiz, positiboak direla iruditzen zait, betiere oinarri sendo bat baldin badute. Alkate karguak denen ahotan jartzen zaitu, eta horrekin bizi izan jakin egin behar da.

Alkate izateak nola aldatu du zure bizitza maila pertsonalean?

Serioa nintzen orain dela zortzi urte, eta berdin jarraitzen dut. Ile gutxiago eta zuriagoa daukat, eta zimur batzuk gehiago ere badituz aurpegiari, baina bestela, berdin jarraitzen dut. Nire bizitza pribatua izan diren aldaketa garrantzitsuak albo batera utzita, alkate karguak eman didan esperientzia nabarmenduko nuke. Lan honetan gauza asko ikasi ditut, eta nire formazioari ekarpen handia egin dio. Nolabait esateko, Udalak ikasketa batzuk eman dizkit, eta lehen neukanari gehituta, Alfredo hobea izan behar harko litzateke oraingoa.

Udaleko langile eta teknikariek nolako harremana izan duzu?

Lantalde egonkorra dago Udalean, eta lan funtzionamendua ere araututa dago. Langile inplikatuak dira, oro har, baina enpresa guztietan bezala, hemen ere denetik dago. Zortzi urte hauetan egin duten lana balaratu behar harko banu, nota altua merezi dutela argi daukat. Enpresa ho-



nen irudia langileak dira, eta herritarrek, normalean, politikoengana baino gehiago langileengana jotzen dute. Nik uste dut asebetetze inkesta bat pasatuko bagenie herritarrei udal teknikarien lana neurtzeko, nota ona emango lieketela. Krisialdi garai honetan langileei ahalegin batzuk eskatu dizkiegu, eta uste dut dena modu onean adostu dugula.

Eta oposizioko zinegotzietan haremana nolako izan da?

Zortzi urte hauek giro onean joan dira Udalean, denok borondate hori izan dugulako. Pleno eta batzar batzuetan izan dira lekuz kanpo esandako gauzak, baina haserre puntualak izan dira. Bestela gai guztietan akordioak lortzen saiatu gara, eta uste dut lortu dugula. Legealdi honetan Ovidio Campello zinegotzia joan zaigu, eta galera handia izan da. Akordiorako prest zegoen gizona zen, eta ez zen zaila berarekin gauzak adostea. Bere lana ondo egiten zuen, eta oroitzapen ona daukat. PSE-EErekin lortu ditugu akordio gehienak, baina besteekin ere harreman ona izan dugu. Adibidez, Gipuzkoa mailan zaborren kontuak gatazka asko sortu ditu herrietan, eta Elgoibarren ez da horrelakorik egon. Tentsiorik gabeko urteak izan dira.

ETAren desagitea zure legealdian izan da. Igarri duzu aldaketarik?

Elgoibarren denok erantzukizunez jokatu dugu gai horretan, eta denok gaude ados ETA gainditu beharreko kontu bat dela esaten dugunean. ETA beti soberan egon da nire ustez, eta horrela adierazi izan dut. Orri beltz bat da gure herriaren historia liburuetan eta orri hori pasatu behar dugu. Hortan ados gaude gehienok, eta Ezker Abertzaleari oso lotuta egon den jendeare ere igarri diot ETA desagertzeko presa moduko bat. Baina, zorionez, Elgoibarren ez dugu kale-tentsio unerik bizi. Kaleko hormak ikustea besterik ez dago konturatzeko pintada edota pankartarik ez dagoela. Elgoibarren ETA gainditu dugula esango nuke, baina kontuz, horrek ez du esan nahi azken hamarkadetako gatazka eta kalteen orria irakurriztat eman eta pasatu dezakegunik. Egindako mina hor dago, eta hori ezin da errepikatu inondik inora. Egia, justizia eta erreparazioa landu beharra daukagu irakurketa zuzena egiteko.

Herritarrek Udalean parte hartzeari garrantzia handia eman diozu, baina zenbateraino hartzen da aintzat herritarren iritzia Udalean?

Gaur egun badirudi erabakiak hartzeko prozesu parte-hartzaile bat ez baduzu martxan jartzen, ez dituzula politika parte-hartzaileak aplikatzen, baina hemen harreman handia daukagu edozein arlotako eragileekin edota herritarrekin. Herritarrek euren eskaerekin etortzen dira, aztertzen dira eta posible den heinean egiten dira. Adibidez, Sigmako eskolako lokalak berrietzea modu horretan egin dugu, eta primeran geratu da. Guk legegaldian herritarren partaidetza arautu dugu, eta aldatu egin daiteke, baina Udalean sartzen den alkatea erabakitzea dator, eta herriak erabakitzeko jarri du hor. Erabaki horiek hartzeko herritarren iritzia entzun beharko ditu, jakina, baina erabakiak Udalean hartuko dira. Aita Agirre erakina antolatzeke ere prozesu parte-hartzaile

abiatu dugu, baina bereziki, eragileen arteko partekatzea sustatzeko izan da. Eragileek jakin beharko dute gauza batzuk eurenak direla baina beste batzuk partekatu egin beharko dituztela. Herritarren eta Udal ordezkarien arteko harremana normaltasunez egitea lortu behar dugu.

Bizikidetzaren hitza ere sarri entzun dugu zure legegaldian. Nola ulertzen duzu bizikidetzaren?

Aukeren garaian gaude eta ez gaude erruak eta zailtasunak gainditzeko aukerak alde batera uzteko moduan. Herri honek zintotasunez eta sinesgarritasunez osatutako inplikazioa eta konpromisoa behar ditu. Hau da etorkizunerako egiazko bizikidetzaren oinarria.

Zer geratu zaizu egiteko? Orain dela zortzi urteko eginiko promesak bete dituzula esango zenuke?

Egin ahal izan dugun guztia egin dugula esango nuke. Udala ekonomikoki ondo dago, eta horrek gauza berriak egiteko aukera ematen du. Datorrenarentzat oso inportantea izango da lau edo zortzi urte barru lortu nahi duen herria irudikatzea. Nik hori egin nuen: Elgoibar nolakoa zen ikusi eta nora iritsi nahi genuen erabaki, diru kontuak ondo aztertuta. Horren arabera lehentasunak jarri behar dira, dena egiteko nahikoa diru ez dagoelako. Kontuan hartu herri osora iritsi behar zarela: erdigunera, auzoetara, landa auzoetara, kirol beharretara, hezkuntzara... Beharrak aztertu eta proiektuak martxan jartzea da gure lana. Une honetan kirol kantxa berria egiten ari bagara, ez da kapritxoa; benetako beharra ikusi dugulako ekin diogu lan horri, eta San Roke auzorako iris-

garritasuna hobetzeko lanak ere egin beharrekoak direla uste dugu. Era berean, Maalako parkea estaltzea ere beharrezkoa iruditu zitzaigun, aisialdirako eta kultur ekitaldietarako horrelako gune bat izatea garrantzitsua delako. Legealdi planean idatzita daude asmoak, baina horrek ez du esan nahi idatzitako guztia egingo dugunik. Asmo horiek hor jarraitzen dute datozenentzako. Zortzi urte hauek krisialdiak markatu ditu, eta ez dugu izan nahibeste diru, baina hemendik aurrera uste dugu egoerak hobera egingo duela. Hurrengo legealdirako zeregin garrantzitsu bat herriko kultur eragileak Aita Agirreraren inguruan artikulatzea eta dinamizatzea izango da. Kirol alorrean oso ondo dago Elgoibar: Mintxetan sekulako instalazioak ditugu aisialdi eta kirolerako, eta kiroldegia bera ere oso ondo dago. Igerilekua ordu batzuetan txiki geratzen dela badakigu, baina bestela instalazioa ondo dago. Beraz, orain kulturari emango diogu bultzada. Euskara, kultura eta formazioan aberastasun handia daukagu, baina herria sakabanatuta dago, eta

eragile guztiak alde zaharraren bueltan, espazio zabaletan kokatzea oso garrantzitsua izango da elkarlanak sustatzeko.

Ane Beitia izango da EAJren alkategaia, eta zereन्द्रaburuak ere aurkeztu dituzue. Hautagaien gaztetasunak atentzioa eman digu.

Bai, jende askok esan digu hori, baina azken batean lan egiteko gogoia duten pertsonak dira. Atzetik jende asko izango dute laguntzeko, eta ez dira sekula bakarrik egongo. Etorkizunera begira gazteek zeresan handia dute, eurak izango direlako datozen urteetan zailtasun handienak izango dituztenak. Zorionez, gaur egungo gazteek ikasketak dituzte eta langabezia datuen arabera, ikasketak dituztenak dira lanik gabe dauden multzo txikiak. Gazteak erabaki behar

du zein ogibide izan nahi duen eta gustuko ikasketak aukeratu behar ditu. Modu horretan, lana aurkituko du. Batzuk zailtasunak izango dituzte, baina Elgoibarko Lanbide Heziketa zentroetatik irteten diren ikasle gehienak, esate baterako, berehala hasten dira lanean. Gazteak generazio inportantea izango dira datozen urteetan. Teknologia berrietan jantzita daude, harremanetarako beste modu batzuk dituzte, eta gainera fresko datoz. Udalari ikutu berri bat emango diote.

Ane Beitia gomendioaren bat emango diozu?

Hona inor ez da iristen gauzak jakinda. Ni ilusioz, baina errespetuz sartu nintzen Udalean, eta Ane ere berdin etorriko da. Alkategai izateko erabakia errespetuz hartu du, jakinda asko daukala ikasteko. Barruan egon arte ez dakizu hau zer den, eta behin lanean hasitakoan ikasten da Udala zer den. Hasieran zezena distantziatik ikusten duzu, eta poliiki-poliki zezen hori gerturatzen joaten da, eta konturatu orduko adarren aurrean toreatzen zaude. Ane lasaia da, eta entzuten daki, eta hori oso garrantzitsua da. Baina gainera, haserretu behar denean, haserretu egiten da. Karakter handiko emakumea da. Laguntzarik ez zaio falta, eta uste dut herriak dituen zereginak betetzeko zerrenda orekatua osatu dugula. Ilusioa, lanerako gogoia eta konpromisoa erakutsi dute, eta ausardia ere bai. 22-23 urteko gazteak ikasketak amaitu berri horrelako kargua hartzeko prest agertzeak asko esaten du euren alde.

Elurrak eta hotzak ere ez zuten lortu zapatuko santa-eskea zapuztea

[...] Santa Ageda bihotzekuak, merezi zaban hainbeste'. Horrelaxe dio kantuak, eta kalerako baino barrurako giro hobea egon arren, kantura irten ziren zapatuan Etxegiña taldekoak eta Mendaroko eskeko taldeak, merezi zuela sinistuta. Makilak eskuan hartu eta kalez kale ibili ziren Elgoibarren Etxegiñakoak, eta baserri baserri ibili ziren Mendaron 50 bat lagun, hiru taldetan banatuta. Sahatzu eta Arno inguruan ibili zirenek, gainera, gorabehera batzuk ere izan zituzten autoekin elurra zela eta, baina hala ere, baserri guztiak koplatu zituzten. Mendaron, 2.892 euro batu zituzten, eta aurten, Arno guraso elkarteari eman diote dirua. Elgoibarko Etxegiña taldekoek, berriz, 1,160 euro batu zituzten Caritasentzat. **Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoiBAREN.net**



Mendaro



Elgoibar



Me



Mendaro



Mendaro



Elgoibar



Mendaro



Mendaro




Mendaro



Elgoibar



Mendaro



laro




Elgoibar



Elgoibar

GAIKO “IKUSEZINAK”



Ez du izenik eta aurpegiarik eman nahi. Nahiko luke bere gaixotasunaz naturaltasunez jardun, baina badaki buruko gaixotasunak oso estigmatizatuta daudela eta nahiago du ezkututik aritu, bere burua babesteko. Eskizofrenia dauka, eta droga-mendekotasuna, baina botiken laguntzarekin saiatzen da bizitza normala egiten, “gorabehera batzuekin”. Gaixo dago, nahiz kalean batzuek zoro esaten dioten, eta gaixotzat hartzeko eskatzen dio bizkarra eman dion jendarte horri; egiteko ahalegina buruko gaixotasunak dituztenei ulertzeko, gerturatzeko haiengana, gehiago urrundu beharrean. Bakardade handia bizi duela aitortu du, eta poesian aurkitu duela urteetan barruan pilatutako sentimendu negatiboak azaleratzeko bidea. “Artea sekulako terapia da”.

Ainara Argoitia

Gaixotasun *txungoa* da hau. Sendabiderik gabea. Kronikoa, bizi osorakoa. Medikazioa zorrotz behar izaten dugu, eta hamabostean behin edo hilean behin psikiatrarenera joan. Drogarik kontsumitu ezean eta medikazioa zorrotz jarraituz gero, bizitza normala egin dezakezu, beti ere gorabehera batzuekin,

jakina, baina gaitzak norbere burua zaintzeko ere indarrrik gabe uzten zaitu sarri, bizitzeko ilusio edo gogorik gabe. Ez zara gai ezta dutxatzeko edo jatekoa prestatzeko ere, eta ohean ematen duzu egun osoa. Haluzinazioak, delirioak... ere izaten dira, eta ahotsak ere entzuten dituzu tarteka, eta beti negatiboak dira; miserian hondoratzen zaituzten aho-

tsak dira, irainak sarri. Etxean isolatzeko joera ere izaten da batzuetan, ni neu ere egon nintzen kalera irten gabe urtebetez, eta suizidiorako joera ere handiagoa da buruko gaixotasunak ditugunengan, sufrimendua handia delako. Jende baten begietara, zoroak gara gainera, gaixo arriskutsuak. Ezjakintasunak eragiten du hori, hala ere, buruko gaixotasunak zer diren dakienak badakielako zer pasatzen ari garen. Inork ez gaitu nahi, eta gure ingurukoek ere gertatzen zaiguna ezkutatzera egiten dute askotan, baina normala ere bada”.

25 bat urterekin eskizofrenia diagnostikatu ziotenetik bizi duen gurrubideaz seguru mintzo da Asier [asmatutako izena da], bizi duena ondo barneratuta duen itxuran. Gaixo dago, bizi osorako gaixo, eta badaki beste gaixotasun kroniko batzuk dituztenen aldean, zailagoa ere baduela berak, buruko gaixotasunen gaineko estigma handia delako oso, baina hala ere, saiatzen da “bizitza normala” egiten. Krisiak beti izaten dira, baina. “Joan zen astean horregatik ez nintzen etorri zuregana. Gorabehera asko izaten ditugu, eta %100ean egon nahi nuen, zu(e)k zerbait argitaratu nahi izateak ikaragarri betetzen naudelako. Ona litzateke denok naturaltasun handiagoz aritzea, gaixotasun hauek gizarteratzeko”.

Burmuineko kimikan edota bestelako mekanismo biologikoen gertatzen diren asaldurek, predisposizio genetikoen, garunean gertatutako kalteek edota substantzia toxikoen kontsumoak eragin dezakete eskizofrenia edo buruko beste gaixotasunak sortzea eta gartzea, baina zaila da zehaztasunez ezagutzea zenbateraino eragiten duten faktore horiek, eta zein konbinazio ematen den kasu bakoitzean. Asierrri ere ez diote argitu gaixotasuna geneetan idatzita zekarren ala ez, baina garbi du drogek zereikusituzena izan zutela gaitzaren garapenean. “Drogek sortu didate gaitza, beste milaka eta milaka gazteri moduan. Bonba bat dira drogak”, dio. “80ko hamarkadan Hiesa zabaldu zen modu berean zabaldu dira buruko gaixotasunak gaur egun: drogen erruz”. Atzera begira jarri da une batez, eta egindakoak damua agertzeak ezer gutxirako balio diola jakitun izanda ere, ezin du aipatu gabe laga. “Neuk egindako hankasartzeagatik nago nagoen moduan, baina ni orduan ez nintzen kontziente neure buruari egiten ari nintzaion kalteaz. Ez neukan informaziorik”. Eta gaur, jakin arren, behar baino sarriagotan egiten du estropozu harri berean. “Aspaldian formal nabil, baina tarteka kontsumitzen dut, bai. Gaixotxo nago”. Drogek mendean hartutakoen patua da.

Patologia duala, “gaixotasun ezezaguna”

“Patologia duala esaten dena daukat nik, nire adin bueltako beste gazte askoren antzera”. Buruko gaixotasunak eta droga menpekotasuna nahasten dituen gaitza da eta ez da denbora asko ikertzen hasi direla, oraintsu arte gaixotasuntzat ere ez zutelako hartzen, eta gaur, oraindik ere, psikiatra askok ez dutelako onartzen. “Horregatik gaude gauden moduan”, dio. Gizarte-segurantzaren buruko gaixotasunak di-

tuztenek jasotzen duten tratua ari da. Euskal Herriaren Donostian bakkarik tratatzen dute patologia duala bere horretan. “Bi kontu nahasten direnez patologia dualean eta orain arte bakoitza bere aldetik tratatu izan dutenez, askotan gertatzen da droga-mendekotasuna duginok psikiatrikoan sartzen gaituztela eta berez psikiatrikoan egon premia dutenak droga-mendekotasuna tratatzeko zentronen batean. Eta hala erabiltzen gaituzte, batetik bestera”. Kexu da profesionalengandik jasotzen duen tratua. Hamar urtean dozenaka psikiatra ezagutu dituela dio, baina “ganorazko” bakarra gaur duena dela. “Hamar minutuko bisitak izaten dira, eta medikazioa zorrotz betetzen duzun galdetzera mugatzen dira gehienak. Honek gutxienez interesa agertzen du, galdetzen dit zer moduz sentitzen naizen-eta, eta badaki entzuten”.

Psikiatrikoko egonaldiak

Duela hamar urte, 25 urte zituela, diagnostikatu zioten gaixotasuna eta zehaztu zioten tratamendua. Lehenengo “eroriko” hartatik “ondo xamar” irten zela dio, baina ez zuela luzaro iraun. Festak eta gau-giroak berehala limurtu zuten, eta drogen sarean jausi zen berriro. “Donostian bizi nintzen, baina asteburu batean etorri nintzen herrira, kontsumitu nuen, eta burua galdu nuen. Agerraldi psikotikoa deitzen dutena izan nuen, errealtatearen



desitxuratze erabatekoa. Ingresatu egin ninduten, estreinako”. Ordutik ingresatu beharra izan duen guztietan, behin kenduta, drogak kontsumitzeagatik izan da. “Azkenekoz, Poliziak atxilotu ninduen, etxean sesioan nenbilerako. Drogak kontsumitu nituen eta burua galdu nuen”. Lanik gabe gelditu zen aldiko krisia ez zuen, hala ere, askoz gozoagoa izan. Lanik gabe, “ordu gehiegi” ematen zituen etxean ezer egin gabe, “etengabeko buru-janean”, eta buruko gaixotasunen bat dutenentzat dagoen txarrena da hori: garunari lanik ez ematea. “Okerren orduan egon nintzen. Urtebete egin nuen etxetik irten gabe, sekulako paranoiek. Jaisten nintzen portaleraino eta kalean jendea atzera-aurrera ikustean berriro gorako bidea hartzen nuen. Izua nion kaleari eta mesedez ingresatzeko eskatu nien gurasoei. Ezin nuen gehiago”. Donostiara eraman zuten aurrena, egonaldi laburretarako psikiatrikora (publikoa). Han, baina, gehienez hilabete eta erdi egiten dute ingresatuta gaixoen, eta denbora hori agortzean etxera edo egonaldi luzeagoetarako zentro kontzertatuetara eramaten dituzte. Aita Mennin bukatu zuen orduan Asierrrek, Arrasaten. Burua jaitsi eta pentsakor jarri da une batez. “Ingresoaldi txarrena izan zen”. Esan gabe doa psikiatrikoan bizitzea berez dela gogorra, hogeita lau ordutik hogeita bi eraikin barruan egin behar izaten dituztelako gaixoen, eta gehienez bi ordu izaten dituztelako ka-

lera irteko, beti ere zaintzapean. "Psikiatrikoak kartzelak dira". Han ez dago ezer eta ezin duzu etxetik ezer eraman, ez gitarra bat, ez irradi bat eta ezta liburu edo jokorik ere. Ezer ez. Telebista, egunkariak, aldizkariak eta kartak baino ez dituzu psikiatrikoan, eta horrekin moldatu behar zara egunean 22 orduz. Gainera, jendea sesioan ari da uneoro, gaixo daudelako eta buruko gaitzak dituztenak oso zakar jartzen direlako batzuetan. Negarrez pasatzen dute eguna beste batzuk, eta osasun-langileak beti dituzu gainean. 'Ez egin hau', 'ez besarkatu hori', 'ez eman hari muxurik', 'ez etzan', 'ez begirik itxi'... Dena debekua da. Jasanezina da". Okerragorik ere badela dio, baina. "Hori da arauak errespetatzen dituztenek dutena. Arauren bat urratzen baduzu, hasten dira arazoak, zigorrak. Lotu zaitzaketek ohera, debekatu diezazukete bi orduz gelatik irtetzea, utzi zaitzakete tabakorik gabe, bisitarik gabe..."

Duintasun eskea

Buruko gaixotasunak dituztenek ustez behar dutenaren kontrakoa topatu du Asierrek psikiatrikoetan; giro-nahasia, lasaitasuna beharko lukeen lekuan. "Kartzelen orde, bainuetxea behar dute gaixok". Edonork eskatuko lukeena eskatzen du: norbaitek entzun ditzala, goxo(ago) har ditzala; aurrera egiteko laguntasuna, azken batean. Hala ere, aitortu du psikiatrikoetan, hein batean, emaitza ona ziurtatuta dagoela, baina drogarik hartu gabe egotea, medikazioa zorrotz betetzea eta egunero errutina bat mantentzea beti delako mesedegarri, ez beste ezergatik. "Egon behar du beste bideren bat!", dio. Salatu ere egin du ikusitakoa, bai Gipuzkoako Foru Aldundian eta baita Arartekoan ere, eta EHBildu eta Podemos alderdietakoekin ere batu da gai honen inguruan hitz egiteko, bere larruan daudenek bizi dutenaz ohartarazteko. "Asko dago egiteko. Gaixotasun hauei buruz ezer gutxi daki jendeak".

Babesa zein garrantzitsua den nabarmendu du; bakardadea eta bazterketa zein mingarri eta etsigarri zaizkien gaixoei. Zortekoa da bera, gutxienez gurasoak ondoan dituelako, eta gaur alokairu sozialeko etxe batean bakarrik bizi bada ere, makulu hori hor duelako behar duen guztietarako. "Egunero bazkaltzen dut eurekin". Baina, hala ere, asko izan dira "bartzertu" dutenak. "Etiketa aspaldi jarri zidaten eta ezinikusia naiz askorentzat, baita lehen lagun nituenentzat ere. Zeharo bakarrik gelditu naiz. Bi lagun on mantentzen ditut bakarrik. Okerren egon nintzen momentuan, berriz, aitaren babesa bakarrik gelditu zitzaidan, nire lagun guztiek eta senide batzuek ere bizkarra eman zidatelako. Eta babes hori hain da garrantzitsua... Momenturik okerrenetan, amaren presentzia hutsak ikaragarri lasaitzen nau". Sarri tokatu zaio kalean zoro dagoela entzun behar izatea eta sufritzen ari denarentzat hori entzutea baino gauza okerragorik ez dagoela nabarmendu du. "Ezjakinak dira zoro deitzen digutenak. Ezjakintasunak egiten du guri beldurra izatea.

Kasuren bat gertutik ezagutu duenak edo informazioa duenak, beste era batera jotzen du". Jende baten esamesak ez entzuteko, etxean babestu izan da sarri, eta badaki hori bera kalterako duela, buru-jana duelako etsairik handiena gaixoak.

Gaur baztertzen duen gizarte hori ulertzera ere iritsi da, hala ere. Berak egin du gainerakooi egitea eskatzen digun ariketaz bestekoa, eta jarri da gaixo ez daudenen larruan. "Badakit buruko gaixotasuna duen bat ondoan izatea zein nekagarri den. Ondo egon naizenean etxean ere hartu ditut lagunak asteburuetan, eta badakit oso gogorra dela norberak dena ematea eta haiek hobera egiten ez dutela ikustea. Oso gaixotasun txarra da hau, bai sufritzen duenarentzat eta baita laguntzailearentzat ere. Lehertuta uzten zaituzte. Lehertuta uzten dugu".

Buruko gaixotasunen gainean asko ikasi du Asierrek halabeharrez, baina teoria da bat eta praktika beste bat. "Zer egin behar dudan bada-kit, egunero errepikatzen didatelako ingurukoek, baina nire bizitza egiten saiatzen naiz ni. Badakit nire onerako ari direla, baina nekagarria ere egiten zait egunero berdina entzutea. Bizitza ordenatua jarraitu behar-

ko nuke, lo-ordu kopuru bera mantendu eta abar, baina ni nire *bolara* noa". Okerrago egon da, baina gaur ere komeni baino gehiagotan ibiltzen da hari batean. "Jarraitzen dut kontsumitzen, bai. Elgoibarren denok dakigu zeinek daukan droga, zeini deitu behar zaion, zeinek salduko digun...". Hala ere, ez du inoren biktima gisa agertu nahi; izatekotan, drogen biktima dela nabarmendu du, eta ez berarekin batera kontsumitzen duten



lagunena edo droga saltzen dienena. "Nik drogak kontsumitzearen erantzulea neu naiz; neu bakarrik", dio.


Proyecto Hombren egin zituen bi urte Asierrek eta inguru guztia aldatu zioten han, drogatik urruntzeko, baina bere esanetan, kalean "ia ezinezkoa" da hori. Elgoibarren bizi da, jaio, hazi eta galdu zen herrian, baina ez du ihes egiteko asmorik. Drogetatik egin nahi du ihes, baina ez lagunengandik. Momentuz, poesian bilatu du ihesbidea. "Balio dit barruan daukadana ateratzeko. Azkeneko hamar urte hauetan jasan-dako tratuak amorrarazita ere banauka eta sentimendu negatibo horiek guztiak kanporatzen laguntzen dit poesiak". Egun onak eta egun txarra ditu, eta sufritzen du, "ikaragarri". Ahulaldiren bat duenean ahalegintzen da berehala sendagileari laguntza eskatzen, eta botiken laguntzarekin eta "sufritzearen sufritzeaz" gaintzen ditu krisialdiak, baina aitortzen du botikak eurak ere oso gogorrak izan zaizkiola, bereziki lehenengo urteetan, eta lur jota eta puztuta utzi dutela. "Lo lagatzen zaituzte. Hori da euren funtzioa". Botikak baino lagungarriagoa zaio askotan hitz egitea, baina parean entzungo duen norbait behar du horretarako, eta ez da beti erraza. Horixe da gehien eskertzen duena, eta horixe da behin eta berriz eskatzen duena: buruko gaitzen gainean argi hitz egitea eta gaixotzat hartzea zorrotzat barik.

Euskadiko Kros Txapelketa jokatuko dute domekan Mintxetan

9:45ean hasiko dira lasterketak

Datorren domekan Euskadiko Kros Txapelketa jokatuko dute Mintxetan. 51. txapelketa izango da aurten goa, eta estreinakoz jokatuko da Elgoibarren. 9:45etik aurrera, kadete, jubenil, junior eta nagusien lasterketak ikusteko aukera izango da, eta maila guztietan Euskal Herriko korrikalaririk onenek jardungo dute lehian. Martxoaren 15ean Espainiako txapelketa jokatuko dute Alcobendasen, eta domekako proba txapelketa horretarako sailkatzeko baliagarria izango da.

Mintxeta atletismo taldeak herritarrei dei egin diete domekan Mintxetara joan daitezten. Sarrera doan izango da, eta ikusleen artean produktuz beteriko otar bat zozketatuko dute.



Alcortak 23-29 galdu zuen eskualdeko derbia



Alcorta Forging Group eta Somos Eibar taldeek senior mailako derbia jokatu zuten joan zen asteburuan lporuan, eta oraingo honetan etxeko taldeak irabazi zuen, 29 eta 23 emaitzarekin. Liga txapelketan jokatu dituzten partida guztiak irabazi dituzte eibartarrek, bat izan ezik, eta horri esker, sailkapen nagusiko lehen postuan daude. Sanloko Alcorta taldea ere aurreneko postuetan dago: 12 partida irabazita eta zazpi galduta, seigarren postuan daude elgoibartarrak, 24 punturekin. Asteburu honetan Pulporen kontra jokatuko du Alcortak, Olaizaga kirodegian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Tolosa 0 (Pref.)
Elgoibar 1 – Martutene 2 (Erreg.)
Elgoibar 0 – Aretxabaleta 2 (Jub.)
Elgoibar 0 – Bergara 2 (Kad. A.)
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 1 (Kad. B)

PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 16 – Zumaia 22 (2. mailako jub.)

Pala

Lagunak 25 – Loiolatarra 24 (1. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Sala Quinto 3 – Concepto Egile 3 (2B)

ESKUBALOIA

Garlan 19 – Lauko Elg. 23 (Sen. nes.)
Somos Eibar 29 – Alkorta Elg. 23 (Sen. mut.)
Gabaz Elg. 26 – Urrietako 26 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 24 – Leizaran 18 (Jub. nes.)
Legazpi 22 – Beristain Elg. 19 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 24 – Usurbil 20 (Kad. nes.)
Basauri 32 – Bankoa Elg. 30 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14

11:00 Elgoibar – Anaitasuna (Lehen. inf.)

ESKUBALOIA (Kirodegian)

Zapatua, 14

10:00 San Roke Elg. – Eibar (Inf. nes.)

11:15 Txarriduna Elg. – Amenabar (Inf. mut.)

12:30 Deca Elg. – Ereintza (Kad. mut.)

16:00 Bankoa Elg. – Barakaldo / Urduliz (Kad. mut.)

17:45 Alkorta Elg. – Pulpo (Sen. mut.)

Domeka, 15

10:15 Sukia Elg. – Amenabar (Aleb. mut.)

11:00 Sukia Elg. – Pulpo (Aleb. nes.)

Krosfit ikastaroa eskainiko du Kirol Patronatuak

Elgoibarko Kirol Patronatuak krosfit ikastaroa eskainiko du martxotik aurrera. Krosfit-a gimnasio barruan edo aire librean intentsitate altuan hainbat ariketa fisiko egiten diren jarduera fisikoa da: pesak altxatuz edo jauziak, jaurtiketak, flexioak, edota abdominalak tartekatuz intentsitate altuan egiten da.

Otsailaren 17an, 11:30ean, eta 18an, 19:30ean, Olaizaga kirodegian jarduera hau probatzeko aukera izango da. Bi saio hauek doan izango dira, eta animatzen den jendearekin taldea osatuko dute. Martxotik aurrera, astelehen eta asteazkenetan izango dira saioak, 19:00etatik 19:50etara.

Elgoibarko eta Mendaroko ikastoletako haurren jaialdiek hasi dituzte gaur inauteriak, mozorro-zaleen jaiak

Desfileak, karaokeak eta dantzaldiak antolatu dituzte biharko, inauterietako egun handirako

Mozorro jaiak hasi da. Mendaroko eta Elgoibarko ikastolako eskola-umeen jaialdiarekin hasi dira inauteriak gaur. Elgoibarko-ek euskal inauteriak irudikatu dituzte ohi legez, eta Mendaron pertsonaia mitologikoen bueltako ikuskizuna prestatu dute. Arratsalderako, berriz, mozorro festa iragarri dute Elgoibarko ludotekakoek. Festa horren barruan, mozorro lehiaketa eta dantzaldia ere egingo dituzte. Inauterietako egun nagusiak, baina, biharkoa eta asteartekoa izango dira. Mendaron, Bizi-Poza txarangaren kalejirak hasiko du bihar festagiroa, 12:30ean, eta arratsalderako dantzaldia eta txokolate-dastatzea antolatu dituzte. Elgoibarren, berriz, arratsalde partean pilatuko dira eguneko ekintza guztiak. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak aisialdi taldeak Atxutxikaraokoa eta koreografiak antolatu ditu 2 urtetik 12 urtera bitartekoentzat. Maalan izango da hori, 18:00etatik 19:30era. Ondoren, leku berean txokolate dastatzea izango da, Mauxitxa txarangak alaituta, eta jarraian mozorrotutakoen eta karrozen desfilea egingo da Maalatik Kalegoen plazara.

Gauean, 23:00etatik aurrera, karaokea izango da Maalako parkean, 16 urtez gorakoentzat eta ordu erdi beranduago hasiko da Mauxitxa txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik Maalako parkera. Ondorenerako, erromeria iragarri dute, Fan&Go taldearekin. Adinekoek ere izango dute zertaz gozatua hala ere, igandean, Gelatxo orkestrarekin dantzaldia izango baitute Jubilatuen Egoitzan, 18:00etatik 21:00ak arte.



Asteartea izango da inauterietako bigarren egun handia. Herri Eskolakoez egun horretan ospatuko dituzte inauteriak, eta 16:30erako Kalegoen plazan batuko dira kalera mozorrotuta irtengo diren guztiak. Ondoren, Xixilipurdi ikuskizuna izango da, eta 18:15ak aldera kalejiran irtengo dira Mauxitxa txarangakoak, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletek lagunduta. Jubilatuen Egoitzan, berriz, dantzaldia egingo dute Gelatxo orkestrarekin, 18:00etatik 21:00ak bitartean. Mozorro lehiaketa ere izango dute, eta bi sari banatuko dituzte ondoen mozorrotuta dau denen artean. Mendaron, berriz, Patxin eta Potxin pailazoaren ikuskizuna antolatu dute martitzenerako (17.30).

Inprobisazio saioa eskainiko du Sinuosek gaur gauean Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan

Inauterietako egitarauan ohikoa bihurtu den kontzertua eskainiko dute Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek gaur gauean, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Inprobisazio saioa izango dela aurreratu du Patxi Zabaletak: "Kartela momentuz txuri utzi dugu eta kontzertuak ematen duenarekin idatziko dugu". Hemeretzi urtez jarraian hutsik egin gabe eskaini dute inauterietako saio hau. Malapen hasi zuten ibilaldia eta han eman zuten kontzertua aurreneko bost urteetan. Gero, Herriko Antzokia probatu zuten eta azkeneko urteetan sotoan aritu dira. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrera doan izango da. Sorpresak egongo direla aurreratu dute.



'Barbantxo' haurrentzako antzezlanak eskainiko dute domekan, Elgoibarren

Barbantxo familia osoarentzako antzezlanak eskainiko du Logela multimedialak domekan, Elgoibarren, Herriko Antzokian (16:30). Barbantxoren ama gaixo dago ohean eta Barbantxo txikiak bazkaria eramane beharko dio basoan lanean ari den aitari. Amak hiru dimentsiotan ikusteko betaurrekoak emango dizkio semeari bidean izango dituen arriskuei aurrea hartzeko, eta ikusleek ere jantziko dituzte betaurreko horiek. Antzezlenerako sarrerak Kutxa bidez edo lehiatilan bertan ere salduko dira. Haurrentzako sarrerak 3,5 eurotan salduko dituzte eta nagusientzakoak, 5 eurotan.

Bilbok dituen ezkutuko Bilboei buruzko erakusketa zabalduko dute Elgoibarren

Unai Villena, Asier Olabarieta eta Aitor Gomezen proiektua da

Sorkuntza, Bilbo eta euskara batzen dituen *Hiri Asko Bere Baitan* proiektuaren sustatzaileek erakusketa inauguratuko dute Elgoibarren eguenean, otsailaren 19an, eta hilaren 23tik martxoaren 1era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko sotoan. Unai Villena idazle elgoibartarraren, Asier Olabarieta musikariaren eta Aitor Gomez argazkilariaeren proiektua da hau, eta Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Sailaren Gazteria zerbitzuak antolatutako Ideiak Martxan lehiaketa irabazi zuen iaz (<http://hiriaskoberebaitan.com>). Bilbok dituen ezkutuko Bilbo txikiagoak erakustea izan da proiektuaren egileen asmoa, eta lan horrekin datoz orain Elgoibarrera.



Erakusketaz gain, zuzeneko emanaldi bat ere iragarri dute martxoaren 1erako. Hainbat herritan egin dute aurrez, eta Elgoibarren estreinakoz ariko dira. Musika-antzerkia eta proiektzioak batzen ditu zuzeneko horrek, eta Sotoan emango dute, 19:00etatik aurrera.

'Pankreaz' antzezlanaren eskainiko du Tartean konpainiak Elgoibarren, gaur zortzi, hilaren 20an

Bertsotan idatziriko euskarazko antzezlanaren da *Pankreas*. Patxo Telleriak idatzitako testua Jokin Oregik zuzendu du. Telleriak berak antzeztzen du, Mikel Martinezekin eta Joseba Apaolazarekin. Tragikomedia da lana, eta pankreas transplante bat behar duen pertsonaia baten istorioa kontatzen du. Pankreas transplantea egiteko, ordea, hildako bat behar izaten da, eta zer emateko eta zer gordetzeko prest dauden erakutsiko dute hiru lagunak. Endredo umoretsua da, muturreko egoerak taularatzen dituen, baina bizitza eta etikarekin lotutako gai sakonak lantzen dituena. Sarrerak 10 euro balio ditu eta Kutxa bitartez, Kultur Etxean eta lehiatilan bertan eros daitezke.

Otsailaren 28an ospatuko dute Mendaron Motxaila Eguna



Garai bateko sasikopotzu ohitura zaharrari jarraituz, Motxaila Eguna ospatuko dute otsailaren 28an Mendaron. Ohi legez, Haitzbeltz kobazuloan hasiko dituzte ospakizunak. 9:30ean batuko dira Gaztetxe atarian eta oinez igoko dia kobazuloraino. Han, 11:30ak aldera dantza, bertsoak, eta kantua uztartuko dituen saioa izango dute, eta ondoren, 15:00etan, elkarrekin bazkalduko dute denek, Gaztetxean (Aitzbeltz tabernan eman behar da bazkaritarako izena). Bazkalostean, Inotzentzio Clownen ikuskizuna izango dute, musikak lagunduta, eta arratsaldean trikiti-poteoa Alaia Martin eta Jokin Uranga bertso-lariekin. Gauean, beriz, kontzertua, gaztetxean.

Oier Gurrutxagak kontzertu bi emango ditu Elgoibarren

Bihar eta martitzenean kontzertu bana emango du Oier Gurrutxagak Elgoibarren. Salento tabernan arituko da bihar, 21:30etik aurrera, eta martitzenean, Txaridunan joko du, Oskitz Gorrotxategi tronpetistarekin batera.

Korrikaren aldeko materiala salduko dute Mendaron

Badator Korrika, euskararen aldeko ekitaldia, eta Mendaron kalera irtengo dira gaur eta bihar haren aldeko materiala saltzera. Gaur, ostirala, plazan jarriko dute mahaia, 18:30etik 19:00ak bitartean, eta bihar, zapatua, frontoian izango dira, inauterietako jaialdiak irauten duen bitartean.

Villabonan aritu dira dantzan Elgoibarko dantzari gazteak

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako dantzariak Villabonan aritu ziren igandean dantzan, Soinu Zahar Txapelketaren barruan. Donostia, Lezo, Oihartzun, Legazpi, Ibarra, Villabona, Asteasu, Gaztelu, Zizurkil, Altsasu, eta Adunako gazteak aritu ziren Elgoibarkoetz gain; guztira 41 neska, bi taldetan banatuta: A sailean, 7 eta 11 urte artekoetan, 18 neska, eta B sailean, 11 eta 15 urte artekoetan, 23. Elgoibartik Maddi Zabala, Amaia Sasiain, Nerea Sasiain, Oihane Agirrebeña, Naroa Lopez eta Irati Marcos lehiatu ziren eta fin aritu ziren. Hurrengo saioa Beasainen jokatuiko dute, otsailaren 28ko asteburuan.



LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **632 143 239 / 628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo umeak zaintzeko. Interna ere egingo luke lan. ☎ **631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **633 236 528**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 418 130**
- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, DBH, LH, ekonomia, kontabilitatea... Esperientzia. Talde txikiak. ☎ **666 042 710**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **626 914 904**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- Emakumea eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. ☎ **630 410 294**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak eta adinekoak zainduko nituzke. ☎ **634 640 588**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldako lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Edozein lan egingo nuke. sukaldako lanetan eskarmentua daukat. ☎ **631 974 442**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **603 743 240**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia sukalde languntzaile lanetan eta nagusiak zaintzen. ☎ **688 682 398**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Umeak zein gurasoak zaintzeko, baita interna moduan ere. ☎ **696 862 544**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Baserrian nahiz kalean egingo luke lan adinekoak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Autoa du. ☎ **620 172 543**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen. ☎ **608 356 453**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **654 304 337**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ **639 423 493 / 943 741 185**

- Emakumea eskaintzen da lanerako, orduka. Etxeak garbitzeko edo arropa plantxatzeko prest. ☎ **631 203 287**
- Emakumea etxeak, portalak... garbitzeko prest. Esperientzia eta gomendioekin. ☎ **648 039 187**
- Emakumea asteburuetan adinekoak zaintzeko prest, esperientzia eta gomendioekin. ☎ **608 820 954**
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, interna ere bai. ☎ **631 705 406**
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, orduka. ☎ **632 454 417**
- Emakume edozein lan egiteko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**

ESKAITZA

- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ahal bada, euskalduna. Apirilean hasteko. ☎ **658 742 348 (Nagore)**

ETXEBIZITZAK

- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren ☎ **677 259 560**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**

- Pisu edo baserri hutsa hartuko genuke mantentzearen, berritzearen eta gastu batzuk ordaintzearen truke. ☎ **678 155 803**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **602 378 498**
- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **639 423 493 / 943 741 185**

BESTELAKOAK

- Spaniel Breton arrazako txakurra oparitzen da. 6 bat urte ditu. Oso lasaia eta esanekoa. Ez du ehizarako balio. ☎ **943 740 628**
- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ **659 377 095**
- Mendiko bizikleta (BTT) automatikoa salgai. 800 euro inguruan salduko nuke. ☎ **628 526 586**

OSPAKIZUNAK

- Txikitan bote-boten jolasten zendun eta oroitzen hoiiek gogoratzea nahi dozu? Ubitarten jai, hazi, bizi edoeta jolastu nahi dezu? Animatu bazkaltzera. Bazkaria otsailaren 28an izango da Txarriduna jatetxean, eta joan nahi duenak 35 euro ingre-satu behar ditu kontu korrante hone-tan: 3035 0007 20 0070732294. Harremanetarako: *boteboteubitar-te@gmail.com*



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Zer erantzukizun du komunitateko gainerakoei jakinarazi gabe etxea saltzea erabakitzen duen bizilagunak?

Legeak etxe horren titulartasun-aldaketaren berri ematea exijitzen dio saltzaileari. Komunitateko idazkari administratzaileari eman behar dio berez horren berri. Eta egiten ez badu, berak egin beharko die aurre etxea saldu ostean gastu orokorretan sortzen diren zorrei.

Normalean, idazkari administratzaileak etxe bizitza horrek dituen zorren gaineko ziurtagiria betearaziko dio. Administratzaile profesionalik ez duten komunitateetan edoeta urgentziaz egiten diren salerosketan, baina, ez dira normalean neurri horiek hartzen. Eta halakoetan, legeak egungo jabea edo ugazaba egiten du zor horren erantzule; kasu horretan, baina, komunitateak etxearen jabe berria nor den garbi jakin arte, saltzaileak eta erosleak erantzun beharko diete zor horiei.

AHOLKUA: Komunitatean obra bat egitea adostu badute eta obra hori finantzatzeko dirua batten ari badira, eta tarte horretan norbaitek etxea saltzea erabakitzen badu, saltzaileak argi jakinarazi beharko dio balizko erosleari eta baita administratzaileari berari ere.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administratzaile-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Miren**, otsailaren 17an 5 urte beteko dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Iker eta Aneren partez.



• Zorionak, **Marilin**, otsailaren 18an 8 urte beteko dituzulako. Zure amaren, Julenen, Carmenen, Josebaren eta bereziki ahizpa Marlynen partez.



• Zorionak, **Jare**, gaur otsailak 13, urtetxo bat beteko duzulako. Muxu handi bat etxeko denon partez, bereziki neba Oihan eta lehen-gusu Danelen partez.




• Zorionak, **Noral** Da-goeneko 7 urte. Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Erik**, aste-azkenean zure urtebetetzea izan zelako. Ondo pasa eta patxo bat etxeko guztien partez, eta bereziki zure arreba Aitanaren partez.



• Zorionak, **bixotza**, zure eguna heldu delako. Ondo pasa zure bederatzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Saretxo**, gure etxeko printzesa. Bihar zure urtebetetzea da, eta oso ondo ospatuko dugu. Markelen eta familiako gainerakoen partez.



• Zorionak **gure Pi-Po txikiari**, 2 urte bete dituelako. Muxu potolo bi familiako guztien partez, eta batez ere arreba Noraren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Naroa**, otsailaren 9an 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, familiako denon partez.



• Zorionak, **Aimar**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.




• Zorionak, **Isidora**, astelehenean urteak beteko dituzulako. Jarraitu horrelako pertsona ona eta alaia izaten. Hotzakeko familiakoen partez.



• Zorionak, **Maddi**, 12 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez.



• Zorionak, **Aratz!** Igandean 2 urtetxo! Patxo handi bat Axular eta familiako beste guztien partez.



Otsailaren 17an, astearta,
ludoteka itxita
egongo da.
Ondo pasa inauterietan!!

Otsailaren 28an
“wii fifa 14” txapelketa.
Izena egunean
bertan eman daiteke





ESKERTZA

TERESA ZUBIZARRETA ARTACHEBARRIA

2015ko otsailaren 8an hil zen, 80urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



13 barixakua

Bideo forum
21:30 'Las horas'
Hitzaldi gelan.

Musika
23:00 Sinuoserren kontzertua
Kultur Etxeko sotoan.

14 zapatua

Kontzertua
21:30 Oier Gurrutxaga
Salento txabernan.

15 domeka

Antzerkia
16:30 'Barbantxo'
Herriko Antzokian.

17 mertitzena

Kontzertua
22:30 Oier Gurrutxaga
Txaridunan.

19 eguena

Argazki erakusketa
19:00 'Hiri asko bere baitan'
Kultur Etxeko sotoan.

INAUTERIAK

13 BARIKAKUA

15:15 Euskal Inauteria
Ikastolako kalejira eta dantza saioa, Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, ikastolan).

17:00 Mozorro festa
Mozorro lehiaketa eta dantzaldia, Ludotekan.

14 ZAPATUA

12:30 Bizi Poza txaranga
Kalejira, Mendaron.

17:30 Dantzaldia
Txokolatada eta dantzaldia, Mendaroko frontoian.

18:00 Abxubikaraokea
2tik 12 urte artera artekoentzat. Maalako parkean.

19:30 Txokolatada eta Mauxitza txaranga
Maalako parkean.
Jarraian, mozorroen desfilea
Mauxitza txaranga, erraldoi eta buruhandiak eta zezenzikletak. Maalatik
Kalegoen plazara.
23:00 Karaokea

Maalan. 16 urtetik gorakoentzat.

23:30 Kalejira
Mauxitza txarangarekin.
Jarraian Erromeria
Fan&Go taldearekin, Maalako parkean.

15 DOMEKA

18:00 Dantzaldia.
Gelaxo orkestrarekin, Jubilatuen biltokian.

17 MARTITZENA

16:30 Mozorroen elkartzea
Kalegoen plazan.

17:30 Patxin eta Pobxin pailazoak
Mendaroko frontoian.

16:45 Xixilipurdi gaur jai
Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalan).

18:15 Kalejira
Mauxitza txarangarekin.

18:00 Dantzaldia.
Gelaxo orkestrarekin, Jubilatuen biltokian.
Mozorrotuen artean bi sari banatuko dituzte.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
13 Yudego 14 Oruesagasti 15 Oruesagasti 16 Barrenetxea 17 Ibañez 18 Garitaonandia 19 Etxeberria 20 Fernandez	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«The imitation game»

13, barixakua: 22:15
14, zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

15, domeka: 19:00
16, astelehena: 21:30

«Mr. Turner»

(Ongarri zinekluba)
19, eguena: 21:30



II. URTEURRENA

JOSEFA GARATE ARRILLAGA

2013ko otsailaren 8an hil zen, 92 urte zituela.

“Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.”





I. URTEURRENA

AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Bizitzak dakarrela
geza eta gazia
haurtzarotik daukagu
ondo ikasia.*

*Bizitza osorako
dugu irabazia
gure bihotzetan zuk
ereindako hazia.*

*Hirurehun eta hirurogei
ta bost egunetan
ezingo dugu esan
ez zaudenik bertan.*

*Amaia, bizi-bizi
zaitugu benetan,
denon gogoan eta
denon bihotzetan.*

Etxekoak

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela. I.urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 14an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

*Izeba joan zinen
urtebete dala,
inoiz kexatu gabe.
Hain zinen apala,
guztiekin atsegin
ta bihotz zabala,
luze izango dugu
guk zure itzala.*

Zure ilobak: Jon, Ane, Leire eta Julen

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela. I.urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 14an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

JUSTINA SANTOS SANTOS

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

2015ko otsailaren 6an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Inofteriak ²⁰¹⁵

OTSAILAK 14, ZAPATUA

◆ **18:00 ATXUTXIKARAOKEA**

0-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Kalegoen plazan.
OHARRA: eguraldi txarra eginez gero, Maalan izango da Atxutxikaraokoa.

◆ **19:30 TXOKOLATADA** Maalako parkean.

◆ **23:00 KARAOKEA** 16 urtetik gorakoentzat Maalako parkean

◆ **24:00 ERROMERIA** FAN & GO taldearekin, Maalako parkean.



KULTURA

elgoibar
bizi-biziXa!

